



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-02-17

VIURTEA 1364.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

402 sinadura bildu dituzte «legitimitate ezari aurre egiteko»

LIZARTZA «Egoera antidemokratikoa salatu eta Regina Otaolaren dimisioa eskatzeko» sinatu du herritarren %79k

ALDARRIKAPENA Lizartzako Herritarren Herri Ekimenak Euskal Herriko eta Europako erakundeetara joko du 5



Jende ugari izan zen atzo goizean Trianguloko Azoka Berezian. N.GARZIA

ARRAKASTATSUA IZAN DA ZUHAITZAREN AZOKA BEREZIA

TOLOSA Giro polita izan zen nagusi atzo, Triangulo plazan; herriko hainbat txokotan zuhaitzak landatu zituzten ikastetxeetako gazteek, Agenda 21 ekimenarekin bat eginez 4

Jende ugari bildu da ilegalizazioak salatzen, Udalak deitutako manifestazioan

VILLABONA 180 herritar inguruk zeharkatu zuen herria atzo, «eskubide demokratikoen alde» 4

SANTI MANTEROLA
RUIDO DE RABIA-KO KIDEA

«Taldearen audio eta bideo material gehiena jasotzen duen lana da»

TOLOSA Musika taldearen historia eta kontzertuak biltzen dituen DVDa eta liburuxka argitaratu ditu 6

2003. OTSAILAK 20

“Egunkaria ixtea sinestezinako gertaera izan da guretzat. Eraso da prentsa askatasunaren eta giza eskubideen kontra.”

Toni Ebner, Midas hizkuntza minorizatueta egunkariaren elkarteko presidentea



www.egunkaria.info

munduan libre bizi ahal izateko **Egunkaria** libre munduan bizi ahal izateko

Roy Scheider eta ume pixontzia



» Uzturretik

Ekain Garmendia

Badago Berlin ekialdean nahiko ezohikoa den hilerri bat. XIX. mende bukaerako hilerri laikoa da, eta bertan lurperatuta daudenak kanposantu konbentzionaletan, judu nahiz kristauek, kabitzen ez zirenak dira: bere buruaz beste egindakoak, ateoak, homosexualak edo komunistak; hil eta gero ere disidente jarraitu zutenetakoak ei ziren. Hilerria hiruzpalau etxe artean dagoen patio antzeko zerbitu da,

hutsarte txiki bat lapida gutxi batzuekin eta umeentzako parke batekin (txirrista bat eta hiru kolunpio). Kuriosoa da, hilerri bat bada ere toki atsegina baita liburu bat eskuan banku batean esertzeko, eta ez da gauza arraroa haurrak hiliarri eta kolunpio artean jolasean ikustea. Bertan izan nintzen azkeneko aldia, kolunpioetan jolasean zebilen haur bat hiliarri batera gerturatu zen korrika: galtzak jaitsi eta pixa egin zion. Politta iruditu zitzaidan postala, ez dakit, naturala, duina (oso).

Roy Scheider hil da azken aste honetan. *Tiburón* pelikulako protagonista izateagatik zen batez ere ezaguna, baina Bob Fosse-ren *All that jazz*-eko azken eszenagatik aipatu nahiko nuke nik hemen; azken eszena horretan, izan ere, Scheider hil egiten da. Baina pelikula musikal

bat denez, protagonistaren heriotza ere saio musikal baten modura dago eszenifikatuta: denak dantza egiten eta kantatzen hasten dira, arropa gutxiko dantzari ingururuta doa Scheider bestaldera, eta abestiaren letrak oinazeari, doluari eta atzean uzten den bizitza bati buruzkoak badira ere, alai eta erritmo bizikoa da kantua. Irtete triunfal bat da, azken showa, azken parrranda handia.

Ez naiz artikuluarri moraleja emateko aurreko pertsonaien inguruak josten hasiko. Hiru imajina proposatzea zen nire asmo bakarra: hilerri konbentzionaletan lekuri ez zuen ateoarena, hiliarri pixa egiten dion umearena eta heriotza propioaz show musikala egiten duenarena. Hirurak, nolabait, heriotzarekin eta duintasunarekin lotuta daude, eta badago hor'lezio bat.

Z Zurea da hitza info

Inauterietan autoa txikitu didate

ARITZ (TOLOSA)

Inauterietan ikaragarri ondo pasa dut. Aitortzen dut, aurtan, beste urteetan ez bezala, ez dudala bronkarik ikusi. Batenbat kontatu didate baina nirez ditut ikusi.

Baina dena ez da hain ona izan Inauteri hauetan. Igandean nire kotxea aparkatu nuen, eta ondo aparkatu gainera. Hau da, ez espaloien gainean, azken egunotan ehunka eta ehunka auto zeuden bezala (bat bera ere ez dut ikusi isunarekin), baizik eta Udalak margotzen dituen marra urdin horietan (hain zuzen, Batxiller Zaldibia kalean).

Asteazkenean, parranda amaitu zenean, nire autora bueltatu eta non nire sorpresa, bi erretrobisoreak apurtuta, ispilua pitzatuta eta ispilu garbitzaileak apurtuta... Merke aterako zait, beraz, autoa behar zen lekuan aparkatzea. Zeinek egin behar du orduan txikizio hauen kargu? Ez dakit ziur zein izango den erruduna baina ziur dakidan gauza bakarra ni, behintzat, ez naizela erruduna.

Dagokionari zuzentzen diot mezua, ondo dago jai giroan sartzea astebetetz baina kontrol apur bat ere izan behar dela iruditzen zait, eta guztion partetik gainera.

L Lehen eta orain



Jesusen Bihotza 50. hamarkadatik hona

VILLABONA • Ezkerreko argazkian Villabonako Jesusen Bihotza eliza ikus dezakegu 50eko hamarkadan. Apenas zuen etxerik inguruan, eta soroak eta zelaiak zituen alboan. 1951eko otsailaren 9an ateratako argazkia da. Ordurako zentro parrokiako lanak bukatuta egongo

ziren, eta errepedetik, berriz, auto bakanen bat igaroko zen, baina noizbehinka. Eskubian, bestalde, gaur egun zonalde horrek duen itxura ikus dezakegu. Elizaren alboan askoz ere etxe gehiago ikus daitezke. 'AMASA-VILLABONAKO ERRETRATU ZAHARRAK' LIBURUA / IMANOL GARCIA

E Eskertza

Orain egun gutxi hil zen
MIGUEL SOROA GOITIA

JAUINA
-Goian bego-



Bere emaztea, seme-alabak, bilobak, arrebak eta gainerako ahaideak, oso eskertzen dizute samingurra bidali eta bere hiletara etorri zineten guztiok.


TOLOSAN
2008ko
OTSAILAREN 17an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

L Laburrak

Barreterapia ikastaroa antolatu du Udalak

ANOETA Barreterapia ikastaroa antolatu du Anoetako Udalak. Lau saio izango dira guztira, hilaren 2tean hasi eta martxoaren 15era arte. Kiroldegian egingo dira eta ordutegia aukeran egongo da: ostegunetan 17:30etik 19:00etara edo larunbatetan 10:00etik 11:30etara. Prezioa 30 euroko da. Ohiko murrizpenak izango dira. Izena udaletxean edo kiroldegian eman daiteke eta horretarako azken eguna hilaren 20a izango da.

Elkarretaratzeak deitu dituzte 'Egunkaria' ren alde

TOLOSALDEA Datorren asteazkenean, hilaren 20an, beteko dira 5 urte *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik. Laster izan dezakete epaiketa, eta «bidegabekiaren kontrako olatu» sortu nahi dute Egunkariaren aldeko taldekoek. Horretarako, elkarretaratzeak deitu dituzte eskualdeko hainbat herritan, asteazkenean bertan: Tolosan, Triangulon izango da 19:30ean; Ibarren, 19:30ean izango da Ibarako plazan; Anoetan, 19:30ean hasiko da Anoetako plazan elkarretaratzea eta Irurako plazan bukatuko da, eta Villabonan, 19:30ean izango da Irualdean elkarretaratzea.

Errioxako upategietara bidaia antolatu dute

AMEZKETA 1959. urtean jaiotako amezketarrek Errioxako upategietara joateko aukera izango dute, martxoaren lehen. Horretarako, urretik autobusean joateko izena ematea beharrezkoa izango da hilaren 22a baino lehen. Joxe Mari Goikoetxeari jakitera eman behar zaio 630 855 00 telefono zenbakian.

Bertso-afaria antolatu dute hilaren 23an

ALBIZTUR Bertso-afaria antolatu dute hilaren 23an, Santa Marinako Segoretxe-berri jaietxean. Sarreak salgai daude, 27 euroren truke. Jaietxean bertan, Albizturko Udaletxean eta 665 74 63 23 zenbakira deituta.

18. postua lortu du Olaberriak Kopenhagen

IKAZTEGIETA Munduko Txirriindularitza Kopako laugarren proban lehiatu zen atzo Kopenhagen Leire Olaberria Ikaztegietak txirriindularia. Puntuazio proban, sailkapen saioan finalerako txartela lortu zuen eguerdian, eta arratsaldean jokatuako finalean 18. postua lortu zuen. Aurretik, herenegun, jazarpen proban lehiatu zen Olaberria, baina bertan, ez zuen sailkapen saioan finalerako txartela lortzerik izan.

B Blogteka info

Sahara-Cross II.a

Otsailaren 24an Ormaiztegin saharar herriaren aldeko bigarren lasterketa antolatu dute.

Tolosaldeko kideok bertan parte hartzeko deialdia zabaldu nahi dugu herri honekiko elkartasuna erakusteko beste modu bat baita. Ondoren azaltzen den bezala lasterketa egun batez bada ere guztiok saharar herriarekin gogoratzeko, eta batez ere, diruz laguntzeko modua da.

Lasterketaren xedea zehazteko orduan aldarrikapena, kirola eta alde ekonomikoa bateratzea pentsatu zen. Ardatzak finkatu eta gero, lasterketaren planteamendua apala eta garbia da. Gure nahia, egun bakar bategatik bada ere, jendea saharar herriaz gogoratu araztea da. Herri honen egoeraz da, 30 urtetik gora darama bere lurraldetik kanpo, Tindufeko (Algeria) errefuxiatu kanpamenduetan bizitzen.

Kirol aldetik, lasterketa gogorra ez genuen jarri nahi, horretarako 10 kilometroko zirkuitu bat prestatu dugu, dena den badu aldapatxo

bat 3 aldiz pasa beharrekoa. Hala ere, gehiegi iruditzen zaienentzako eta jai giroaz gozatu ahalizateko lasterketa testimoniala ere izango da, ume eta helduentzat irekita eta bestearen ondoren ospatuko dena kilometro bateko ibilbidean.

Azken ardatza alderdi ekonomikoa da, eta horretarako guztien laguntza behar dugu. Lasterketa-rekin biltzen dugun diru guztia saharar herriarentzat diru laguntza bihurtuko da. Kanpamenduetan dituzten bizi-baldintzak guretzako jasanezinak liriateke, eta guk bidali diezake egun laguntza ziur asko estimatuko dutela.

Lasterketan parte hartzeko, izena alde aurretik eman nahi duenak 8 euroko diru sarrera egin behar du Sahar-Cross elkartearen Euskadiko Kutxaren kontu korrontean (3035 0006 8100 6001 7279), diru-sarreraren azalpenaren izena jarrita. Lasterketaren egun berean egingez gero, 10 euro ordaindu beharko dira. www.sahara-cross.com orrialdean eman ahaliko da izena, eta bertan ibilbidea ere ikusi ahaliko da, *ibilbidea* izeneko atalean.

» DATUAK

- **Non.** Ormaiztegin.
- **Antolatzailea.** Sahara-Cross elkarte.
- **Noiz.** Otsailaren 24ean.
- **Lasterketa.** 10 kilometro lasterketa nagusiak (11:00etan aterata); lasterketa testimonialak kilometro bat (12:15ean aterata).
- **Izen-ematea.** 8 euro aurrez, eta 10 lasterketa egunean. Urteek bozondatea.
- **Sariak.** Kamisetak denentzat. Sailkatuentzat sariak eta zozketan produktu ugari.
- **Giroa.** Lasterketaren ondoren freskagarriak, gozoak, salda eta pintxoak izango dira, eta haimak eta musika ere egongo da.
- **Aparkalekuak.** Ondo markatuta egongo dira.
- **Dutxak.** Udal kiroldegikoak erabiliko dira.

Anima zaitzete elkartasuna, kirola eta egun pasa batuz lasterketan parte hartzera!

Tolosaldea Sahararekin
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/sahararekin/>

S Soka motzean

«Deialdian sartzen ez dudanak juerga egingo duela esaten dit»

JOXEAN OTAÑO
Entrenatzailea

JOXEMI SAIZAR

Hogei bat urte daramatza futbol entrenatzaile gisa Joxean Otaño irurarrak: lau urtez Tolosa CFn (hondartzako alebinak, infantilak eta kadeteak), bi urtez Ibarako Lauburu areto futbol taldeko bigarren taldea, urtebetez Ordiziako Euskal Ligako jubenilak, Amaroako jubenilak eta azken bost urteotan Alegiako Intxurreko jubenilak.

Nola hasi zinen entrenatzen?

Beti izan naiz futbolzalea, Athletic-zalea. Iruran Gazte Alaiak futbito taldean aritzen nintzen eta Angel Mari Zurutzak animatuta hasi nintzen Tolosan.

Eskualdeko talde gehienak ezagutzen dituzu behoko mailetan. Non da afizio eta giro onena?

Alegian. Jokalarien artean, zuzendartizan, herrian...

Non osatzen da errezen taldea?

Tolosan, selekzio bat delako. Herrietan dagoenarekin osatu behar izaten da.

Zer behar du entrenatzaile on batek?

Letxe txarra, afizioa eta pazientzia handia.

Zein dira zurekin aritu eta goren iritsi direnak?

Real Unioneko Iker Gabarain eta Endika Mendizabal, Tolosako Apezetxea eta Romero... Alaves B-k Gabarain fitxatu zue-nean zorionak eman nizkion. Niregatik ez balitz 14 urterekin utzi egingo zuela erantzun zidan.

Zertan aldatu dira gazteak?

Gutxiago sakrifikatzen dira, pasotismo handiagoa dago. Lehen deialdian sartzen ez nuena penaz gelditzen zen. Orain juerga egingo duela erantzuten du.

Areto futbolala ala zelai handia?

Txikia, erosoagoa; handia, politagoa.

Nolako instalakuntzak daude inguruan?

Onak, denek belarra edo belar artifiziala dute, gureak eta Antzuolakoak ezik. Hori behar genuke, alde onak besterik ez ditu.



J. SAIZAR

Oso alai izan zen atzoko azoka Zuhaitzaren Azokarengatik

Tolosa Asteroko azokan, baratxuri freskoak, porruak, azenarioak eta gazta berria izan ziren aipatzekoak.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso alai izan zen Zuhaitzaren Azoka Berezia zela eta. Triangulo plazan postu asko jarri zituzten, frutarbolak baso espezieak eta apaingarriko arbolekin.

Frutarbolen artean, aipatzekoak sagarrondoak, udareondoak, gerezondoak, aranak, intxaurrak, urrak edo eta gaitainondoak. Baso espezieen artean, bertakoak eta kanpoko espezieak izan ziren. Bertakoen artean pagoak, haritzak, urkiak, lizarrak edo eta aler-tzeak izan ziren, eta kanpoko artean pinak, douglasak, norte-haritzak, edo eta sekouiak ikusi genituen.

Asteroko azokan, aipatzekoak baratxuri freskoak, porruak eta azenarioak, eta gazta berria, pixkanaka beste postuetara zabaltzen ari dela.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza Landareak		
Landina	10,00	-
Ziklamena	2,20	5,00
Erroneroa	4,00	6,00
Krisantemoa	3,00	12,00
Gerbera	12,00	-
Biola	3,00	-
Lobelia	4,50	-
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktak

Fruta		
Errezil sagarra	0,80	8,00
Matxakana	6,00	-
Pikua	2,00	-
Mizpiradia	3,00	-
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Ibarako piparrak	4,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	8,00
Kalabaza	1,50	3,00
Azenarioa	1,20	7,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Arroza	1,90	2,00
Tipula	1,75	2,00
Dilistak	2,40	-
Arbi morea	4,00	-
Zerba	2,00	-
Erremolatxa	1,60	-
Letxua	1,00	-
Aza	2,50	3,00
Ogia	2,55	-
Mermelada	3,00	3,60



«Egungo egoera salatzen»

VILLABONA • Azken asteetan Baltasar Garzon epaileak EAE-ANV eta EHAK ilegalizatu izanak eragina, erreakzioak eta erantzunak izan ditu. Azkenia, atzo Villabonan egindako manifestazioa izan zen. *Eskubide demokratikoen alde ilegalizatzen ez!* lelopean ateratzen ziren plazatik, herri osoa zeharkatuz 180 bat lagun. Bukatzeko, herriko plazara iritsi zirenean, Maixel Arrieta alkateak (ANV) manifestazioa joandakoei eskerrak eman zizkien, eta «egungo egoera salatzen» adierazpenak ere egin zituen. N. URBIZU

Eskaintza zabala, giro aparta Triangulon, usain goxoak eta lore eta landare ederrak. Gaztetxo askoren zeregina atzo gereziondoak eta urkiak landatzea izan zen Tolosako hainbat puntutan, Agenda 21 proiektuari jarraituz.

Triangulo plaza baso bihurtuta

NEREA URBIZU

Zuhaitzaren Eguna ospatu zuten atzo Tolosan: zuhaitz mota asko, kolore bixiak eta usainak nahasturik Triangulon. Erosle asko izan zen eta ikusleak, are gehiago. Izan zen zerekin denbora pasa, urtean zehar etxeetan ikusten ez diren lore eta fruituak ere baibaitzeuden. 12. urtez ospatzen dute egun hau, eta arrakasta izan du aurten ere. Musika ere entzun zitekeen bertan, Triangulon.

Mota guztietakoak

Ezohiko eguraldia ere izan zen, aukeran, bikaina, eguzkitsua eta argia; eguzki izpiek lore eta zuhaitzen izaera indartu zituzten. Kakus bitxiak, ziklamenak, pensamientoak, baita landare eta lore usaindunak ere (erromeroa, tomilloa, jasmína, menda...), hortentsiak, geranioak, ezpela... Zuhaitzetan, urkiak, palmondoak, oli-bondoak, gorostiak, bonsaiak... Bazen ikasteko aukera ere, joandako 15 mintegiei esker. Larunbatero daudenekin batera, zortzi ziren atzo ezohikoak zirenak.

Urki eta gereziondo gehiago


Tolosako Usabal kiroldegiaren inguruan, Oria bazterrean gereziondoak landatu zituzten, guztira, 60 bat, lorezainak esan bezala. Bidebieta auzoan urkiak landatu zituzten, N-1 errepideak eragiten duen kutsadura akustikoaren aurka nolabait borrokatzeko. Zabalarreta parkean, berriz, hau gehiago edertu nahian, udal ordezkariak izan ziren zuhaitzak landatzeko prest.

Aitzurra gainean hartu eta batzuk besteak baino estilo gehiagorekin aritu ziren zuhaitzak landatzen. Gaztetxo batek esan zigun: «Nik baratzen erabili izan dut aitzurra, ez da lehen aldia». 5. eta 6. mailako ikasleak ziren. Jinkanako jokuez gozatzeko aukera ere izan zuten, Agenda 21 proiektuak eskaini bezala. Goroldi enpresako lorezainen laguntza izan zuten momentu oro gaztetxo hauek, landatzeko orduan, galderak egiteko orduan, eta baita aitzurra hartzeko garaian ere.

Lore zuriz beteta ikusi ahal izango dira hemendik urte batzuetara, eta ondoren, fruitu gorritz josita.



Usabal kiroldegiaren ondoan, Oria ibaiaren ondoan gereziondoak landatu zituzten. NAIARA GARCIA



Jendeak interesa erakutsi zuen. Zuhaitzak, zuhaixkak eta landare bitxiak zeuden salgai. N. URBIZU



**ANOETAKO HERRI IKASTOLAK
LANPOSTU BATERAKO
DEIALDIA EGITEN DU**

LANPOSTUA:

- Anoetako Herri Ikastolan administrari buru lanak betetzeko.
- Ikastolen lan hitzarmenak zehaztutako lan baldintzak.
- Egiturazko lanpostua betetzeko.

OINARRIZKO ESKAKIZUNAK:

- Euskara (EGA) titulua edota baliokideak.
- Titulazio eta esperientzia baloratuko dira.

KURRIKULUMAK anoeta@ikastola.net-era bidali.
Otsailaren 25a azkeneko eguna.



402 sinadura bildu dituzte Lizartzan eta orain «Euskal Herriko eta Europako erakundeetara» joko dute. N. GARZIA

«Legitimitate ezaren aurrean», 402 sinadura

Lizartza » 402 sinadura bildu dituzte herritarren artean, «Regina Otaola alkatearen dimisioa» eskatzeko helburuz.

ERREDAKZIOA

Atzo Lizartzako Herritarren Herri Ekimenak prentsaurrekoa eskaini zuen plazan, bestea beste, 2 hilabeteetako lana egin ondoren sinadura bilketaren berri emateko. «Lizartzako Herritarren Herri Ekimenak, bi hilabete lanean egon ostean, sinadura bilketari amaiera ematen dio eta beste prozesu batean murgiltzen gara». Hitz hauekin eman zioten hasiera, herritarrek atzean zituztela, prentsaurrekoari.

Osozara 402 sinadura bildu dituzte, honek herritarren %79a esan nahi du eta prentsaurrekoan azaldu zuten, «kontuan izanik azken hauteskundeetan 356 pertsonen emane zutela bozka, emaitza ezin hobekoa lortu ditugu». Sinadura hauek iritzirik publikoari aurkezteko helburuarekin egin zuten prentsaurrekoa, baita «Regina Otaolaren egoera antidemokratikoa salatzeko asmoarekin eta aldi berean Regina Otaolaren dimisioa eskatu eta herritarren kudeaketa herritarren esku utz dezala aldarrikatzeko».

402 sinadura

Herri Ekimenekoek adierazi zuten, «402 sinadura hauekin eta herritarren nahiaren zilegitasunarekin

Euskal herriko eta Europako erakunde desberdinetara joko dugu, egoera hau salatu eta konponbide bat aurkitzeko konpromisoa har dezaten».

Bigarren fasea

Sinadura bilketaren ondoren bigarren fasea zertan datzan azaldu zuten Lizartzako Herritarren Herri Ekimenatik. «Bigarren fasea izango litzateke Euskal Herriko eta Europako erakundeetara jotzea. Pentsatzen dugu Eudelera joan behar dugula, zerbait esateko badaukala uste dugulako. Bildarrazteak bere garaian esan zuen Lizartzako udalarekin legezkoa zela, eta guk uste dugu legitimitate kaxkara duela, %6arekin eta 27 botoarekin. Pentsatzen dugu 402 sinadurek, botoak ez izan arren, herritarren nahia islatzen dutela».

Honetaz gain, Ibarretxerengana ere jotzeko asmoa dutela gehitu zuten. «Berak herritarren erabakiaz hitz egiten du, eta non gelditzen da Lizartzako herritarren erabakia?».

Europari dagokionez, bide honi nola ekingo dioten oraindik zehaztu gabe daukate. «Europa ere ukitu nahi dugu, ez dakigu nola, herri ekimen bat gara eta ez dugu aukera handirik, baina laneko grina dugu eta sortuko dugu bideren bat bertara iristeko».

Komunikabideen jarrera


Prentsaurrekoaren ondoren, komunikabideek Lizartzarekiko duten jarreraren inguruan mintzatu ziren. «Lizartza denon ahotan dago, baina gaur bertan argi ikusi

da puri-purian dagoela beraien interesetan zaienean. Kazetari pila bat etortzen dira, baina gero 402 herritarren firmek ez dute beraietzat inolako garrantzirik». Beraien ustez, Lizartza ikuskizun batean bihurtu da. Komunikabideak askotan etortzen dira, behar bada 15 kamarangurua eta kazetari ugari, guk ez dakigu nondik etortzen diren, ez dakigu benetan informatzea etortzen diren, hori dela beraien lana, edo Reginari txalokajotzea».

Atzo egindako prentsaurrekoan, 2 kazetari izan ziren. «Gaur 2 kazetari besterik ez dira etorri eta besteen hutsunea kristorena da, eta hori guretzat mingarria da. Lizartzan orain dela 8 hilabetera arte ez genuen espero ezta kazetari bat ere etortzea, orain hainbeste etortzen dira, baina gero benetan herritarrok zerbait egin nahi dugunean ez dira azaltzen, eta hori mingarria eta salagarria da».

«Demokrazia?»

Batzuren eta besteen demokrazia-aren inguruan ere gogoeta egin zuten. «Beraien demokrazia oso ahu- la dela uste dugu, eta ez duela zentzu handirik Lizartza batean bertakoa ez den alkate bat izatea: ez du gure hizkuntza, ez ditu gure ohiturak, eta etortzen den bakoitzean 40 ertzainekin etortzen da». Amaitzeko, demokrazia herritik aplikatu behar dela adierazi zuten. «Guk uste dugu demokrazia aplikatu behar baldin bada, herritik egin behar dela, eta horretan saiatuko gara».



Lizarribar eta Zubiri, Urbieta Iruztunen aurka, gazteen mailan. N. URBIZU

Aurrera-Saiazek Berria Txapelketan aurrera jarraituko du

Pilota » 51 tanto lortu zituen, Erniopek, aldiz, 44; beraz, Alkizakoek Berria Txapelketari agur esan behar izan diote.

N. GARZIA

Atzo V. Berria Txapelketaren barruan Beotibarren jokatu den norgehiagokan Aurrera-Saiaz taldeak 51 tanto lortu zituen eta Erniopek, aldiz, 44, honela azken hau txapelketatik kanpo gelditu zen.

Kadeteetan Irastorzak eta Ulanagak (Aurrera-Saiaz) Urbieta Zinkunegiren aurka jokatu zuten 7-22 galduz. Hau izandua zen Aurrera-Saiazekoek galdu zuten partida bakarra. «Tanto batzuk gehiago egitea zen nire ilusioa», dio Luix Galarraga Aurrera-Saiaz Pilota Eskolako arduradunak, «baina beste bikotea ere oso ona zen».

Gazteen mailan, Lizarribarrek eta Zubirik (Aurrera-Saiaz) Urbieta eta Iruztun 22-13 irabazi zie-

ten. «Oso partida arraroa izan da, gure pilotariak oso urduri zeuden». Seniorretan ere, Renobalesek eta Galarragak (Aurrera-Saiaz) Erniopei eta Asperi 22-9 irabazi zieten. «Ez nuen espero horrelako aldearekin irabaztea». Gauzak honela, Aurrera-Saiazek 51 tanto lortu zituen eta Erniope taldeak, 44.

Berrikoa, txapelketa «zaila»

Berria Txapelketak hainbat jardunaldi daramatzen arren Aurrera-Saiaz taldea gaur estreinatu da, Erniope taldeak, berriz, jada asteburu batzuk badaramatza txapelketa honetan. Aurrera-Saiazekoek lehenengo izatea mutilen urduritasunean nabaritu dela dio Galarragak. «Lehenengo partida jokatzeko denean taldeak urduri egoten dira. Mutilentzako presio handiko txapelketa da, talde lana egin behar dute eta presio hori eramatea zaila egiten zaie». Hala ere, lehenengo jardunaldiarekin «gustura» gelditu direla gehitu du.

FORMAKUNTZA IKASTAROK (Langileentzat)				
KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA				
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA	
Aprobisionamenduaren kudeaketa	50	2008-02-18	Astelehenerik ostegunera 18:00 - 21:00	
Ordenagailua. Ingurua eta mantentzea. (Internet, korreoa...)	30	2008-02-20		
Berokuntzako instalazioen muntaiak	40	2008-02-20		
Instaladore Elektrikorako Karmelaren prestaketa (Formazioa eta azterketa, ikastetxean bertan)	100	2008-02-20		
Lantaldeen kudeaketa (Adimen emozionala - Arduradunak)	30	2008-02-25		
Fresadora CNCren programazioa (Heidenhain)	46	2008-04-02		
CAD 3D Modelatuak eta planoak (Solid Edge)	30	2008-04-07		
Lanen Programaziorako teknikak (Mekanika)	50	2008-04-07		
BESTE IKASTAROK WEB ORRIAN				
Matrikula eta informazioa: Telefona 943 65 11 47 Santa Luzia, 17 - 20400 TOLOSA idazkaritza@tolosaldea.com www.tolosaldea.com				

E **Elkarrizketa****SANTI MANTEROLA** ▶ Ruido de Rabia taldeko kidea

Jorge, Antonio Mateos, Shanti Iribar, Santi Manterola eta Lamberto Perurena. HITZA

«Taldearen audio eta bideo material gehiena jasotzen duen lana da hau»

Kultura ▶ Tolosako Ruido de Rabia taldeko historia eta zuzenekoak biltzen dituen DVDa eta liburuxka argitaratu ditu Santi Manterolak.

HARRIET BELLOSO

Ruido de Rabia 80. hamarkadan talde garrantzitsua izan zen euskal hardcore-punk munduan. Santi Manterola (Tolosa, 1965) taldeko baxu-jotzailea izan zen, eta hori dela eta, DVDa eta liburuxka bat plazaratu ditu taldearen kontzertuekin eta irudiekin.

Nola sortu zen DVDa eta liburuxka plazaratzeko ideia?

2006. urte hasieran, etxeko ganbarara igo nintzen batean, 1991. urtean Bordils-en (Girona) eman genuen zuzeneko emanaldi baten bideo bat aurkitu nuen eta DVD formatora pasatzea erabaki nuen. Pixkanaka ahal izan nuen taldearen material guztia biltzen hasi nintzen, eta proiektuaren zirriborroak lantzen hasi nintzen behin betiko emaitza lortu arte.

Zenbat denbora egon zara proiektu honetan lanean? Laguntzarik izan al duzu?

Material guztia bildu ostean, zortzi bat hilabete eman ditut lanean, hau da, 2006ko abendu erdialdetik 2007ko abuztu erdialdera arte. Hitzzen itzulpena eta audioren berr-masterizazioa ezik, proiektu guztia burutu dut. Diseinua, muntaia eta beste gauza asko egin ditut.

Zer aurkituko dugu DVD eta liburuxka hauetan?

DVD honetan taldearen audio eta bideo material gehiena jasota dago. Hiru gorpuzko digipack batean aurkeztutako lana da, eta bertan material oso interesgarria bilduta dago. Disko batean lau zuzeneko emanaldi egongo dira: 1991ean Andoaingo gaztetxean emandakoa, urte berdinean Giro-nako Silver aretoan egin genuena, Andoaingo bide eskolan eskaini genuena eta Ruido de Rabiaren azkenengo emanaldia. Kontzertu hauen irudiak argazki galeria baten egongo dira. Donostian Groseko institutuan emandako zuzeneko emanaldia biltzen duten bi CD sartu ditugu, eta azkenik taldearen hitz guztiak eta artea jasotzen duen 60 orrialdeko liburuxka.

Erraza izan al da material guztia biltzea?

Uste baino errezagoa egin zitzaidan materiala biltzea, lagun zahar batzuei (taldekide ohiak barne) dei batzu egin eta berehala bildu nuen guztia.

Nolakoa izan da zaleen harrera? Jendeak gogoan al du oraindik Ruido de Rabia?

Harrera ona izan da taldearen ja-

rraitzaleen artean eta baita ere belaunaldi berrien artean, nahiz eta hauek taldea ezagutu ezin izana eta soilik garaikideei entzundako erreferentzia eduki.

Zein da DVD honetako zure piasarterik gustukoena?

Orohar osorik dut gustuko, baina agian Andoaingo 1991. urteko zuzeneko emanaldiarekin geratzen naiz.

Zeintzuk dira urte horietatik dituzun oroitzapenak?

Nire bizitzako sasoi eder bat izan zen eta oroitzapen zoragarri ugari gordetzen ditut.

Nola sortu zen Ruido de Rabia taldea?

1985eko urte bukaeran Tortura Sistematika banandu ondoren Shanti Iribar eta Lamberto Perurenak deitu ziguten eta sortzen ari ziren talde berrian parte hartzeko proposamena egin ziguten. Garai hartan Ganda eta biok Autodefensa erautsetikan sortu zen Eizen taldean jotzen genuen. Ruido de Rabiaren ibilbidearen hasieran, taldearen erapena honakoa zen: Shanti (ahotsa), Lamber (gitarra), Ganda (bateria) eta Santi (ni, baxua).

Non eman zenuten zuen lehen kontzertua?

Lehen emanaldia ustekabekoa izan zen. 1986. urteko neguan, Eizen Burgosen genuen kontzertu batera Shanti eta Lamber gurekin etorri ziren. Kontzertua bukatuta-

koan, eszenatokira igo eta abesti batzuk jo genituen, taldearen lehenengo emanaldia izanez.

Musika munduan sartu zinetetik estilo berdina mantendu duzue edo estilo desberdinak jorratu dituzue?

Ruido de Rabiari dagokionez hasieratik bukaerara arte musika aldetik beti estilo berdina mantendu genuen. Hasieran hardcore eta punk soinuaren eragina nabariagoa zen, baina 90. hamarkadan grindcore eta Death Metal soinu aldera jo genuen.

Ruido de Rabiaren hastapenetan zein talderen eragina izan zenuen?

80. hamarkadako hardcore talde europarrenak: (Finlandia eta Ingalaterrako taldeak, batez ere) eragin asko izan zuten gure musikan. Discharge talde ingelesa European hardcorearen aintzidariak izan zirela uste dut.

Zeintzuk izan ziren kontzertu berezienak?

Bordils (Girona) herrian emandako kontzertua oso berezia izan zen, eta nahiz eta jende asko ez egon, bertan izan zirenak oso gustura egon ziren. DVDn oso ondo ikusten da hori.

Diskorik edo maketarik argitaratu al zenuten? Zenbat urte egon zineten izen horrekin?

Izen honekin bederatzita urte eman genituen, 1985etik 1994ra arte hain zuzen ere. 1987. urtean Burgoseko

Ultimo Gobierno taldearekin *Eros versus Thanatos* diskoa plazaratu genuen. 1991ko martxoan *Pequeñas reliquias de un infanticida*, taldearen bigarren lana grabatu genuen. 1993. urtean *Revolucion cosmica* diskoa egin genuen. Phobia / Duros sentimientos zigiluak argitaratu zuten.

Ruido de Rabiak egin zituen abesti guztietatik zein da zure abesti gustukoena? Zegatik?

Lehen diskoan azaltzen den *Estacas educativas en mentes limpias* abestia da gehien gustatzen zaidana, bere hitzetan islatzen baita gizarzte honen oinarritzko arazoa, lehiakortasunaren oinarritzen den hezkuntza. Bertan esaten den bezala, lehiakortasunak elkartzatzen du.

Zerk eragin zuen taldearen desagertzea? Edo Lobo Electrico izan aldaketa bat izan zen soilik?

Nik taldea utzi eta bi urteetara desegin zen Ruido de Rabia taldea. Ruidoren desagertzea Lobo Electrico sortzerako bost bat urte igaro ziren.

Desberdintasunik ba al dago biltaldearen artean?

Musika eta hitzen aldetik desberdintasun nabariak daude.

Noiz izango dugu esku artean Lobo Electricoren material berria?

Laster aterako dute beraien bigarren EPa. Kitarra-jotzaile berria dute eta oso gogotsu daude.



Aita, Markos eta Aitor, trikitilarien omenez Aiako San Pedro auzoko plazan dagoen eskulturaren aurrean. HITZA

Markos Landa eta bere bi semeek, Aitor eta Markos, aho-soinuarekin musika herrikoiaren emanaldiak egiten aritzen dira. Aitak txikitatik izan duen afizioak jarraipena izan du familian.

Familia batzen duen afizioa

IMANOL GARCIA

Aho-soinuarekin 80ko hamarkadaren bukaeran hasi ziren Markos Landa (Albiztur, 1956) eta bere bi semeak, Aitor (Anoeta, 1978) eta Markos (Anoeta, 1983) ikus-entzuleen aurrean emanaldiak egiten. Albizturren egindako aho-soinu txapelketan parte hartu zuten. Hiru egin ziren eta hurrengo urtean Bidegoianen egindako aho-soinu jaialdian ere parte hartu zuten.

Askoz lehenago du Markos Landak harremana instrumentuarekin. Bost urte zituela Arantzazura egindako bidai batean, aitak aho-soinu bat oparitu zion. Hortik aurrera hasi zen saltzeaz. Albizturrera joaten ziren trikitilarien emanaldiekin ikasten zuten. Estanka jatetxean eta Ostatu jatetxearen arkupetan jasotzen zituen doinuak. Gero pieza berriak Albizturko kaletik baserrira praktikatzen joaten zen eta horrela joan zen ikasiz. Solfeo ikasketarik ez du izan eta dakien guztia belarritz jasotako da.

Lehenengoa, 'Andre Madalen'
Afizio hori soinu txikia ikasteko nolatan ez duen erabili askotan galdetu diote. Albizturko lagunek ekarri zioten behin soinu txikia, baina garai hartan diru askorik ez zegoen eta ezin izan zuen soinu txikia ordaindu eta bueltan joan zen. Harrezkero aho-soinuarekin jarraitu du eta bere semeek pasatu die afizioa.

Landatarren etxean beti egon dira aho-soinuak eta horiek izan



Hiru Landatarrek oholta gainean, Albizturko 1988ko amabirjinetakojaietan egin zen aho-soinu txapelketan. HITZA

dira musika instrumentu nagusiak. *Andre Madalen* izan da semeek ikasi duten lehenengo abestia. Nahiz eta biek solfeo ikasketak izan, aho-soinua belarritz ikasi dute. Erabilitako metodoa hauxe zen: A letra jartzen zuen haizea bota behar zenean eta B letra haizea hartzeko. «Horrela ikasi genuen *Andre Madalen* eta hortik aurrera belarritz jarraitu dugu jontzen, ordu asko sartuz eta afizioak bultzatuta», diote.

Diskoa grabatzerainoko bidea
Aita orain gutxira arte kamioi gidaria izan da eta pentsua banatzen aritzen zen baserrietan zein enpresetan. Askotan zenbait baserrietan piezak jotzeko eskatzen zioten, baina sekula plazan jo gabea zen. Esan bezala, Albizturko aho-soinu txapelketa eta Bidegoiangoa Aho-soinu Jaialdia izan ziren lehen plazaak.

Hortik Arrate Irratikoko Esteban Larrañagak deitu zien, *Sutondoko*

erromeria saiorako. Han izan eta gero Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek egiten zuten ETBko *Funtzioa* saiotik deitu zieten. Berran aita bakarrik izan zen. Lehenengo aldiz telebistan eta zuzenean egin zuen. Kateari jarraituz, saio horretako ekoizleak IZ disketea zuen eta proposamena egin zieten diskoa grabatzeko. Horrela, 1991an, *Albizturko aho-soinua* diskoa grabatu zuten. 12 abesti zituen guztira, horietatik zortzi Markos

Landa berak eginak. Aitak aho-soinua grabatu zuen, Aitorrek panderoa eta Markos semeak panderoa abesti batean.

Aitak kamioia gidatzen aritzen zela sortu zituen abestiak. Grabagailu bat ondoko eserlekuan, esku bat bolantean eta bestearekin aho-soinua jotzen zuela, abestien zatiak asmatzen joaten zen. Gero asteburuan, denbora izaten zuenean, grabatutako zatiak entzun eta abestiak osatzen zituen.

Espereintzia polita izan zen hirukotearentzat diskoa grabatzea eta horrek, gauza berri bat zenez, harrera ona izan zuen Durangon. Diskoa argitaratu ondoren telebistatik buelta batzuk eman zituzten hainbat saioetatik: *Airez aire*, *Herriko plaza*, *Goraintzi*, *Txiskola...* Plazaz plaza ere aritu dira eta jarraitzen dute eta hainbat jaialditan ere parte hartu dute.

Trikitixaren doinuak oinarri

Garai batean aho-soinua jotzen zen baserrietan. Soinu txikia erosteko aukerarik ez eta musika jotzeko aukera bihurtzen zen. Gero, pixkanaka soinu txikia indarra hartzen joan da, eskolak sortu baitira eta instrumentu bezala ere oso goa baita. Horrek aho-soinua jotzearen ohitura gainbehera joatea ekarri du.

Markos Landak, baina, afizio horri eutsi dio. Hori bai, hirukoteak egindako musika soinu txikian oinarritu da beti: fandangoa, arinarina, trikitixa, porrusalda, kalejira... Bestelakoak ere jotzen dituzte, balsak edo rantxerak, baina oinarria trikitixa izan da.

Doinu horietan oinarritzen den aho-soinu jotzailek ez dute ezagutzen, erromeri eta jaialdi askotan izan arren. «Familia guztia txikitatik ibili gara erromerien munduan», dio Aitorrek. «Aho-soinuak asko bateratu du familia eta oraindik ere batzen du». Jendea harritu egiten zaie ikusita semeek oraindik aitari jarraitzen diotelako, baina hauek garbi dute: «Barruan daramagu, bizi egiten dugu, ondo pasatzen dugu eta espero dugu urte askotan jarraitzea». Aita, bere aldetik, gustura, jarraipena duela ikusita.

Batzuetan gertatu zaie entzule batek esatea entzuten ari zena soinu txikia zela pentsatzen zuela. Izan ere, erabiltzen duten aho-soinu motak soinu bizia du, soinu txikiaren antzekoa. Hain eramangarri izanik, soinean askotan eramaten dute eta ez dute aitzaki handirik behar edozein afaritan ateratzeko. Auto guztietan dituzte eta etxean ere txoko ugarietan daude, guztira 60 inguru aho-soinu. Emanaldietara 8-10 ematen dituzte, batzuetan aldatu egin behar izaten dituztelako.

Aurrera begira, disko berri bat grabatzea gustatuko litzaieke. Oraindik ez dira zentratu horretan, baina espero dute denbora gehiegi ez pasatzea diskoa grabatu aurretik. Aitorren ametsetako bat, behintzat, bigarren disko hori grabatzea da.



13°
8°

GOIZA	HODEIALTUAK
ARRATS.	HODEIALTUAK
BEROENA	13°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Hilaren 23 eta 24ean Moncayo mendira irteera antolatuta du Oargi mendi elkarteak. Izen-ematea, 637 830380 zenbakian.
■ **Amezket.** Hirigintza eta kon-tuen batzordeak elkartuko dira bihar, balioanitzeko gelan, 20:30ean.

Zinema

■ **Tolosa.** *La sombra del cazador* filma izango da ikusgai, Leidor aretoan, gaur 19:30ean eta bihar (ikuslearen eguna) 20:30ean.
■ **Tolosa.** *La búsqueda* gaztetxoentzako filma izango da ikusgai, Leidorren, 17:00etan.
■ **Villabona.** *American Gangster* filma izango da ikusgai Gurea aretoan, gaur 19:30ean eta bihar (ikuslearen eguna) 21:30ean.
■ **Leitza.** *La boda de Tuya* filma izango da ikusgai, 19:30ean zinematan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
■ **Lekua.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Bihar
■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.
■ **Betelu.** Carrillo Ruiz, A. Kale Nagusia, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aire berriak itxita zegoen ostatuan

HERNIALDE ■ Igone Vazquez eta Mikel Iriondo topera ibili ziren atzo eguerdian ere, pintxoak eta jatekoak banatzen eta prestatzen, jende asko hurbildu baitzen, Hernaldeko ostatura. Kultur ekitaldiak antolatu nahi dituz-

te bertan, baina sukaldian ere lan handia izango dutela argi ikusi zen atzo. Pintxo frexkoak, berriak eta betikoak ere izan ziren. Herritarrek, behintzat, harrera oso ona egin diote berriz ireki den ostatuari. N. URIBI

A Agurrak



Zorionak!

Aimar (Izakun). Atzo 15 urte. Etxeko guztien partetik, batez ere, Iraitz, Ugaitz eta Nahia.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak

Orain ospa dezakezu!!

urtebete

telefonía finkoko hileko kuotarik gabe

eta, gainera...

Deiak >

6M-ko Banda Zabalera >

Telebista Digitala >

29,45 €^{an}

bakarrik

San Francisco 19, Tolosa
☎ 943 698 126

Enkaltuen Banatzaile Ofiziala

* Informazio gehiago lortzeko jarraitu gure webgunea edo deitu gure zerbitzariak. Hona hemen gure zerbitzariak: 943 698 126. Gure zerbitzariak 943 698 126. Gure zerbitzariak 943 698 126. Gure zerbitzariak 943 698 126.